



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2019IPLE0009

**Eguna:** 2019-09-24

**Ordua:** 19:00 – 19:40

**Tokia:** Areto nagusia

#### Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Iasa ..... Astigarragako EH Bildu
- Aintzane Barandiaran Ezponda ..... Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena..... Astigarragako EH Bildu
- Roxali Fernandez Rodriguez ..... Astigarragako EH Bildu
- Esti Neira Martinez ..... Astigarragako EH Bildu
- Aitor Güemes Oyarbide ..... Astigarragako EH Bildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz ..... Astigarragako EH Bildu
- Urkiri Salaberria Gracia..... Astigarragako EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro..... Astigarragako EAJ-PNV
- Antton Costa Casco..... Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco..... Astigarragako EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo..... Udal-talde Sozialista

#### Bertaratu ez direnak

- Juan Martín Arregui Sagües.....Astigarragako EAJ-PNV

#### Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezkari udal kontu-hartzailea

#### Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

#### Aztergaiak

Alkateak proposatu du gai-zerrendan gehitzea 2020rako taxi tarifen onarpena, aho batez onartu dena.

El alcalde propone que se incluya en el orden del día la aprobación de las tarifas de taxi para el 2020, siendo aprobada la propuesta por unanimidad.

EGUNEKO AZTERGAIAK	Zk N°	ORDEN DEL DIA
2019ko uztailaren 23ko akta onartzea.	1.	Aprobación del acta de 2 de julio de 2019.
Tokiko gobernu batzarra.	2.	Junta de Gobierno Local.
Erakundeetako ordezkariak	3.	Representantes de las instituciones.
Kreditu gehigarria: 2019-KALD-0007	4.	Crédito adicional: 2019-KALD-0007



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

2020ko zerga fiskala.	5.	Ordenanzas fiscales 2020.
Zerga-zorrak ordaintzeko Astigarragako Udala eta Correos erakundearen arteko hitzarmena	6.	Convenio entre el Ayuntamiento de Astigarraga y Correos para pago de deudas tributarias
Bidegi, Astigarragako Udala eta Astigarraga Lantzen SA sozietate publikoaren arteko hitzarmena.	7.	Convenio entre Bidegi, Ayuntamiento de Astigarraga y la sociedad Pública Astigarraga Lantzen S.A.
ERGOBIA IBILBIDEA HIE 09 eremuko b.2/1 eta b.2/2 partzelei buruzko aldaketa puntualaren espedientean, Gipuzkoako Itsasertzeko Zerbitzu Probintzialaren txostena betetzeko Planoa	8.	Plano para dar cumplimiento al informe del Servicio Provincial de Costas de Gipuzkoa en el expediente de modificación del Plan General del Area 9 ERGOBIA IBILBIDEA, en relación a las parcelas b.2/1 y b.2/2.
Kale izendegiaren aldaketa.	9.	Modificación del callejero.
EHBildu taldearen mozioa: klima aldaketaren aurka konpromiso zehatzak hartzeko	10.	Moción de EHBildu: para adoptar compromisos concretos en contra del cambio climático.
2020rako taxi tarifak	11.	Tarifas de taxi para el 2020
Informazio, galdera eta eskariak.	12.	Información, ruegos y preguntas.

### Esan-eginak eta erabakiak

Alkateak proposatu du gai-zerrendan gehitzea 2020rako taxi tarifan onarpena, aho batez onartu dena.

#### **1.- 2019ko uztailaren 23ko akta onartzea.**

Aintzane zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran egon ez zelako, gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

#### **2.- Tokiko gobernu batzarra.**

Tokiko Gobernu Batzarreko kideak aldatzeari buruzko 1056/2019 Dekretuaren berri eman da. Alkateak azaldu du egindako aldaketa izan dela EHBilduko kide bat beste batengatik ordezkatzea, hain zuzen, Estiren ordezkari Aintzane jartzea, hasieratik hori izan zelako asmoa.

#### **3.- Erakundeetako ordezkariak**

Alkateak proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

El alcalde propone que se incluya en el orden del día la aprobación de las tarifas de taxi para el 2020, siendo aprobada la propuesta por unanimidad.

#### **1.- Aprobación del acta de 2 de julio de 2019.**

La concejal Aintzane se ha abstenido al no haber estado presente en la reunión anterior, el resto, en cambio, han votado a favor. Por lo tanto se ha aprobado el acta.

#### **2.- Junta de Gobierno Local.**

Se informa del Decreto 1056/2019 sobre sustitución de las y los miembros de la Junta de Gobierno Local. El alcalde expone que la sustitución realizada ha consistido en reemplazar un miembro de EHBildu por otro, concretamente sustituir a Esti por Aintzane, dado que el propósito fue ese desde el inicio.

#### **3.- Representantes de las instituciones.**

El alcalde presenta, para su aprobación, la siguiente propuesta:



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

**Lehena:** Beterri-Buruntza eta Buruntzaldeko Taxi Batzorderako ordezkari hauek izendatzea:

**Primero:** Nombrar los siguientes representantes para Beterri-Buruntza y la Comisión del Taxi de Buruntzaldea:

Erakundea	Ordezkaritza titularra	Bere ordezkaria
BETERRI BURUNTZA BATZORDE KUDEATZAILEA	Xabier Urdangarin Roxali Fernández	Andoni Gartzia Ione Olatziregi
BETERRI BURUNTZA MANKOMUNITATEA BATZORDE SUSTATZAILEA	Xabier Urdangarin	Andoni Gartzia
BURUNTZALDEKO TAXI BATZORDEA	Xabier Urdangarin	Aitor Güemes

**Bigarrena.-** Ebazpen honen berri aipatu erakundeei ematea .

**Segundo.-** Comunicar esta resolución a los órganos correspondientes.

Alkateak azaldu du Beterri-Buruntzak bi organo dituela eta uztailaren 2ko osoko bilkuran bi ordezkari izendatu ziren arren, ez zela adierazi horiek batzorde kudeatzailearentzako zirela, eta batzorde sustatzailearentzako, berriz, ez zela izenedapenik egin. Ezta taxi batzorderako ere.

El alcalde señala que Beterri-Buruntza cuenta con dos órganos, y que aunque en el pleno del día 2 de julio se nombraron dos personas representantes, no se indicó que se elegían para la comisión gestora, y que para la comisión promotora, en cambio, no se efectuó ningún nombramiento. Tampoco para la comisión del taxi.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du uztailaren abstenitu egin zirela bere taldeko inor ez zelako izendatu erakunde bakar baterako, eta orain ere berdina egingo dutela.

Toma la palabra la concejala Nerea y señala que en julio se abstuvieron porque ningún miembro de su grupo fue nombrado para una sola institución, y que ahora también harán lo mismo.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **onartu** egin da aldeko 7 botoekin (*Astigarragako EHBildu*) eta 5 abstentzioekin (*Astigarragako EAJ-PNV eta udal talde Sozialista*)

A continuación se ha procedido a votar y se **aproba** con 7 votos a favor (*Astigarragako EHBildu*) y 5 abstenciones (*EAJ-PNV Astigarraga y Grupo Socialista Municipal*).

#### **4.- Kreditu gehigarria: 2019-KALD-0007**

Alkateak ogasun eta ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

#### **4.- Crédito adicional: 2019-KALD-0007**

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

**Lehena.-** 2019ko abuztuaren 26an, 3351 sarrera erregistroa, Andoni Gartzia Arruabarrenak Astigarragako EHBildu taldearen izenean aurkeztutako alegazioa onartzea.

**Primero.-** Aprobar la alegación presentada por Andoni Gartzia Arruabarrena, en nombre de EHBildu de Astigarraga con fecha 26 de agosto



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

**Bigarrena.-** 2019-KALD-000007 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien modalitateari dagokiona, 3.178.000,00 eurokoa behin betirako onartzea:

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du alde bozkatuko dutela, aurreko legealdiak beraiek hasitako proiektuekin jarraitzen delako, eta horrek erakusten duela kudeaketa ona egin zutela.

Azken horren harira, alkateak adierazi dio ezin dutela kudeaketa onaz hitz egin, udal-aurrekontua gaizki zegoenean, eta ez zirenean gastu esanguratsuak jaso, hau da, ez zela aurreikuspen ona egin. Zinegotziarentzat, berriz, gauzak ez dira beti nahi bezala ateratzen, baina kudeaketa ona izan zen.

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du EAJ-PNV taldeak beti esaten duela kultur etxea doan lortu dela, baina hori ez dela horrela, eta herritarrek jakin behar dutela. Nerea zinegotziak erantzun dio udalak ordaindu beharrekoa BEZA eta ekipamendu-hornidura dela, baina Andoni zinegotziarentzat eraikinaren kostua sustatzaileak udalari eman behar zion zenbatekotik deskontatu behar da.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

de 2019, registro de entrada 3351.

**Segundo.-** Aprobar definitivamente la modificación de créditos, crédito adicional 2019-KALD-000007, por importe de 3.178.000,00 €:

Toma la palabra la concejala Nerea e indica que votarán a favor, porque se continúa con el proyecto que ellos comenzaron en la anterior legislatura, y que eso demuestra que la gestión realizada fue buena.

Al hilo de eso, el alcalde le indica que no pueden hablar de buena gestión cuando el presupuesto municipal estaba mal, y cuando no se recogieron gastos significativos, es decir, que no se realizó una buena previsión. Para la concejala, en cambio, las cosas no salen siempre como se quiere, pero la gestión fue buena

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que EAJ-PNV siempre afirma que la casa de cultura se ha obtenido de manera gratuita, pero que eso no es así, y que la ciudadanía lo debe saber. La concejala Nerea le responde que lo que debe abonar el ayuntamiento es el IVA y el equipamiento, pero para el concejal Andoni el coste del edificio se debe descontar del importe que debía entregar la promotora al ayuntamiento.

A continuación se procede a votar y se **aprueba por unanimidad**.

### **5.- 2020ko zerga fiskala.**

Alkateak ordenantzetan egin diren aldaketen berri eman du eta adierazi asmo dela behin betikoz azaroan onartzea. Jarraian, ogasun eta ondare batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.-** Ordenantza fiskalei buruzko Testu Bateginaren hasierako onespena, 2020ko urtarrilaren 1ean indarrean jartzeko.

**Bigarrena.-** 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hasierako onespeneren erabakia jendaurrean jarriko da 30 egun baliodunez.

### **5.- Ordenanzas fiscales 2020.**

El alcalde informa de las modificaciones introducidas y señala que la intención es aprobarlas definitivamente en noviembre. A continuación, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

**Primero.-** Aprobación inicial del texto refundido de ordenanzas fiscales para su entrada en vigor el 1 de enero de 2020.

**Segundo.-** Conforme a lo dispuesto en el artículo 16 de la Norma Foral 11/1989, el acuerdo de aprobación inicial se someterá a



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

**Hirugarrena.-** Alegaziorik aurkeztuz gero, Ogasun batzordeak egiten duen irizpenaren proposamenaren arabera ebatziko dira.

**Laugarrena.-** Alegaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespren-erabakia behin betiko bihurtuko da beste erabaki bat hartu behar izan gabe.

Nerea zinegotziak adierazi du batzordean alde bozkatu arren, orain abstenitzeko asmoa dutela, dokumentuari alegazioak aurkeztuko dizkiotelako.

Mikel zinegotziak adierazi du planteatu den igoera (%2a) logikoa iruditzen zaiola, eta KPlaren azpitik dagoela. Bestetik, famili bakarreko hobarien inguruan komentatu du gai hori aurreko legealdian planteatu zela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **onartu** egin da aldeko 8 botoekin (Astigarragako EHBildu eta udal talde Sozialista) eta 4 abstentzioekin (Astigarragako EAJ-PNV).

### **6.- Zerga-zorrak ordaintzeko Astigarragako Udala eta Correos erakundearen arteko hitzarmena**

Alkateak ogasun eta ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.-** Onartzea zerga eta beste zuzenbide publikoko zorrak posta bidezko igorpen kontu mugatuetan ordainketa erraztearen hitzarmena, Correos y Telégrafos, S.A., S.M.E. Estatuko Sozietatea eta Astigarragako Udalaren artean.

**Bigarrena.-** Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko, eta baita garatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko ere.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

información pública durante el plazo de 30 días hábiles.

**Tercero.-** Caso de formularse alegaciones serán resueltas a propuesta del dictamen que emita la comisión de hacienda.

**Cuarto.-** Caso de no formularse alegaciones el acuerdo de aprobación inicial devendrá en definitivo sin necesidad de nuevo acuerdo.

La concejala Nerea señala que pese a votar a favor en la comisión, ahora tienen la intención de abstenerse, dado que han presentado alegaciones al documento.

El concejal Mikel señala que la subida planteada (2 %) le parece lógica, y que está por debajo del IPC. Por otra parte, en torno a las bonificaciones para las familias monoparentales comenta que dicho tema se planteó en la anterior legislatura.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** con 8 votos a favor (Astigarragako EHBildu y Grupo Socialista Municipal) y 4 abstenciones (EAJ-PNV Astigarraga).

### **6.- Convenio entre el Ayuntamiento de Astigarraga y Correos para pago de deudas tributarias**

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

**Primero.-** Aprobar el Convenio entre la sociedad estatal Correos y Telégrafos, S.A., S.M.E. y el Ayuntamiento de Astigarraga, para facilitar el ingreso en cuentas restringidas de giros postales utilizados para pagar deudas tributarias y otras de derecho público.

**Segundo.-** Autorizar al alcalde a la firma del convenio y de cuantos documentos sean necesarios para desarrollar el mismo.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### **7.- Bidegi, Astigarragako Udala eta Astigarraga Lantzen SA sozietate publikoaren arteko hitzarmena.**

Alkateak azaldu du proposatzen den aldaketa dela obra udalak egin beharrean, Astigarraga Lantzenen esku uztea, eta Bidegi horrekin ados dagoela. Jarraian, obra eta zerbitzuak batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.-** Garraio Zentroari eta Zarkumendegiko industrialdeari zerbitzua emango dion edateko ur sarearen kudeaketa eta gauzaketarako Bidegi, Astigarragako Udala eta Astigarraga Lantzen, S.A. sozietate publikoak sinatutako hitzarmenaren lehenengo eta bigarren estipulazioak aldatzea, eta idazkera hau ematea:

### **7.- Convenio entre Bidegi, Ayuntamiento de Astigarraga y la sociedad Pública Astigarraga Lantzen S.A.**

El alcalde expone que la modificación que se propone es que las obras, en lugar de ejecutarlos el ayuntamiento, se dejen en manos de Astigarraga Lantzen, y que Bidegi está de acuerdo con ello. A continuación, presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de obras y servicios:

**Primero.-** *Modificar las estipulaciones estipulación primera y segunda del convenio suscrito entre Bidegi, Ayuntamiento de Astigarraga y Astigarraga Lantzen S.A., para la gestión y ejecución de la red de agua potable que da servicio tanto al CIT (Centro Integral de Transporte) como al Polígono Zarkumendegi, y darle la siguiente redacción:*

#### **Primera.-** *Obligaciones de las partes respecto a la adjudicación y ejecución de la obra*

*1.- Astigarraga Lantzen SA se compromete a contratar y aprobar el Proyecto de red de abastecimiento de agua consistente en la ejecución de un nuevo ramal de distribución directa desde el DDAP de Putzuetta a las zonas de abastecimiento (C.I.T y Polígono Zarkumendegi).*

*2.- Astigarraga Lantzen SA se compromete a tramitar el expediente de contratación de las mencionadas obras, así como a adjudicar y ejecutar las mismas.*

*3.- El Ayuntamiento de Astigarraga se compromete a colaborar técnicamente en la dirección e inspección de las susodichas obras.*

#### **Segunda.-** *Compromisos económicos asumidos por las partes*

*1.- Los gastos derivados de la los proyectos, ejecución y dirección de las obras serán abonadas entre BIDEGI, Astigarraga Lantzen S.A y Ayuntamiento de Astigarraga en los siguientes porcentajes:*

- 1. BIDEGI, el 32%.*
- 2. Astigarraga Lantzen S.A el 57%.*
- 3. Ayuntamiento de Astigarraga: 11%.*

*BIDEGI y el Ayuntamiento de Astigarraga abonarán a Astigarraga Lantzen, las certificaciones de obra en virtud de su porcentaje.*

*Dichos costos se abonarán en mensualidades, imputándose dichos costos en los presupuestos que se aprueben por las partes suscribientes.*

*Las incidencias contractuales con repercusión económica sobre el precio de adjudicación (tales como exceso en liquidación, revisión de precios, modificación de tipos impositivos etc.), serán financiadas por cada una de las partes en virtud de su porcentaje. Para la aprobación de las citadas incidencias, será preceptiva la aprobación por el órgano administrativo correspondiente, así como la existencia y*





## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

disposición de crédito adecuado para la cobertura de los importes.

**Bigarrena.-** Bidegiri akordio honen berri ematea.

**Segundo.-** Notificar este acuerdo a Bidegi.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

### 11.- 2020rako Taxi tarifa

Alkateak adierazi du gaia obra eta zerbitzuetako batzordean aztertu zela, baita bezperan egindako Buruntzaldeko Taxi Batzordearen bileran ere. Azaldu du azken bilera horretan bi proposamen aztertu zirela eta adostu datorren urterako tarifak %0,8a igotzea. Jarraian, akordio hau hartzea proposatu du:

**Bakarra.-** 2020 urterako ondorengo taxi tarifak onartzea.

### 11.- Tarifas de taxi para el año 2020

El alcalde señala que el tema se trató en la comisión de obras y servicios, así como en la reunión de la Comisión del Taxi de Buruntzaldea celebrada la víspera. Expone que en esa última reunión se presentaron dos propuestas y se acordó subir las tarifas para el año próximo un 0,8 %. A continuación, propone la adopción del siguiente acuerdo:

**Único.-** Aprobar las siguientes tarifas de taxi para el 2020:

1 TARIFA*			2 TARIFA**		
Gutxiena tarifa mínima	Egindako kilometroa kilometro recorrido	Itxaron ordua hora de espera	Gutxiena tarifa mínima	Egindako kilometroa kilometro recorrido	Itxaron ordua hora de espera
5,3642	1,1404	21,8840	6,3938	1,8268	34,3927

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du

\* Lanegunetan 07:00tik 22:00 arte.

\*\* Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan .

La tarifa mínima contempla recorridos de 1,5 kilómetros o esperas de 5 minutos.

\* laborables de 7:00 a 22:00 horas.

\*\* Esta tarifa se aplicará los días laborables de 22:00 a 7:00 horas, los domingos y días declarados festivos a nivel autonómico y local, y también los sábados y el 24 y 31 de diciembre.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

**8.- ERGOBIA IBILBIDEA HIE 09 eremuko b.2/1 eta b.2/2 partzelei buruzko aldaketa puntualaren espedientean, Gipuzkoako Itsasertzeko Zerbitzu Probintzialaren txostena betetzeko Planoa**

**8.- Plano para dar cumplimiento al informe del Servicio Provincial de Costas de Gipuzkoa en el expediente de modificación del Plan General del Area 9 ERGOBIA IBILBIDEA, en relación a las parcelas b.2/1 y**



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

Alkateak hirigintza, etxebizitza, ingurugiro eta mugikortasuneko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.-** HIE 09 eremuko b.2/1 eta b.2/2 partzelei buruzko aldaketa puntualari dagokion HAPOn Aldaketa-espediterearen IV.00 plano a – “*cumplimiento Ley de Costas*” izena duena – onartzea.

**Bigarrena.-** Planoa Gipuzkoako Foru Aldundira helaraztea, eskatutakoa zuzendu denez, behin betikoz onar dezan HAPOn Aldaketaren espediterearen agiria, HIE 09 eremuko b.2/1 eta b.2/2 partzelei buruzko aldaketa puntualari dagokiona.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta aurreratu du alde bozkatuko dutela. Adierazi du ez duela EHBilduren jarrera ulertzen, 2019ko uztaileko udal osoko bilkuran espediente beraren kontra bozkatu zutelako, baina beti ere ona dela jarrerak zuzentzea.

Andoni zinegotziak erantzun dio bere taldea Plan Orokorren aldaketa horren kontra egon arren, espediterearen izapidearekin jarraitu behar dela, udal teknikariek adierazi baitie atzera botaz gero, udalak kalteordainak ordaindu beharko lituzkela.

Nerea zinegotziak aurpegiratu dio beti kritikatu arren plan orokorra, gero horretaz baliatzen direla. Andoni zinegotziarentzat, berriz, dokumentu horrek etxebizitzak bakarrik ekarri ditu, baina azken lau urteetan zerbitzuak ez direla indartu.

Adierazpen horrek bi taldeen arteko eztabaida sortu du, hezkuntzaren egoeraren ingurukoa. Nerea zinegotziak ikastolako handipenaren inguruan ezer ez egin izana leporatu baitie, baita ez jakitea zein egoeratan dagoen DBHren gaia. Andoni zinegotziak eta alkateak horien berri hezkuntza batzordean eman zela azaldu diote, baita ere ez dela egia jaurlaritzak esan izana DBHko eraikina ezin dela Mendiaundi egin. Gainera, alkateak adierazi du jaurlaritza Arrobitxuloko eraikinaren obra-proiektuaren zai zeudela, baina aurreko legealdian ez zela horren

### b.2/2.

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, vivienda, medio ambiente y movilidad:

**Primero.-** Aprobar el plano nº IV.00 denominado “*cumplimiento Ley de Costas*” del Expediente de Modificación del P.G.O.U para el Área A.I.U 09 “*Ergobia Ibilbidea*” relativo a las parcelas b.2/1, b.2/2 y e.2.

**Segundo.-** Remitir el plano a la Diputación Foral de Gipuzkoa para que, subsanado lo solicitado, proceda a la aprobación definitiva del Documento del Expediente de Modificación del P.G.O.U para el Área A.I.U 09 “*Ergobia Ibilbidea*” relativo a las parcelas b.2/1, b.2/2 y e.2.

Toma la palabra la concejala Nerea y avanza que votará a favor. Añade que no comprende la actitud de EHBildu, porque en el pleno municipal de julio de 2019 votaron en contra del mismo expediente, pero que siempre es bueno corregir posturas.

El concejal Andoni le responde que pese a que su grupo está en contra de dicha modificación, hay que continuar con la tramitación del expediente, ya que las y los técnicos municipales les han señalado que en caso de no hacerlo, el ayuntamiento debería pagar indemnizaciones.

La concejala Nerea le reprocha que aunque siempre critican el plan general, luego finalmente se valen de él. Para el concejal Andoni, en cambio, ese documento sólo ha generado viviendas, pero en los cuatro últimos años, por contra, no se han fortalecido los servicios.

Esas manifestaciones generan un debate entre los dos grupos, en torno a la situación de la educación. La concejala les reprocha no haber hecho nada en torno a la ampliación de la ikastola, al igual que su desconocimiento sobre la situación de la ESO. El concejal Andoni y el alcalde exponen que se dio cuenta de esos temas en la comisión de educación, así como que tampoco es verdad que el gobierno vasco





## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

inguan ezer egin.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

haya afirmado que el edificio no pueda hacerse en Mendiandi. Además, el alcalde señala que en el Gobierno Vasco están a la espera del proyecto de obra del edificio de Arrobitxulo, pero que en la anterior legislatura no se hizo nada en torno a ese asunto.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

### **9.- Kale izendegiaren aldaketa.**

Alkateak obra eta zerbitzuak batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin

*AIU9 eremuan eraiki den Kultu-etxe berriari Kontxa Etxeberria plaza 1 zenbakia ematea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

### **9.- Modificación del callejero.**

El alcalde presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de obras y servicios:

*Asignar a la casa de cultura nueva construida en el área AIU9 el n.º 1 de Kontxa Etxeberria plaza.*

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

### **10.- EHBildu taldearen mozioa: klima aldaketaren aurka konpromiso zehatzak hartzeko**

Alkateak azaldu du mozioa bere taldeak aurkeztu arren, beste taldeek ekarpenak egin dituztela, eta bozeramaile batzordean testu bateratu bat adostu dela. Jarraian, hori aurkeztu du onartua izan dadin:

### **10.- Moción de EHBildu: para adoptar compromisos concretos en contra del cambio climático.**

El alcalde expone que aunque la moción la presentó su grupo, los demás grupos también han realizado aportaciones y que en la junta de portavoces se ha acordado un texto conjunto. A continuación, presenta la moción para su aprobación:

- 1 Astigarragako Udalak larrialdi klimatiko egoera deklaratu du.
- 2 Astigarragako Udalak, Eusko Jaurlaritza premiatzen du deklaratu berri den larrialdi klimatikoaren egoerari aurre egiteko neurri eraginkorrak hartzera eta horretarako plan eta politika zehatzak abiatzera, udalekin koordinatuta, beharrezkoa den karbonogabetze prozesua 2040. urtera aurreratzeko.
- 3 Astigarragako Udalak, Jaurlaritza premiatzen du aldaketa klimatikoaren eraginez pairatuko ditugun ondorioetara egokitzeko neurriak hartzera .
- 4 Astigarragako Udalak, bere eskumenen baitan, Aldaketa Klimatikoari aurre egiteko politika eraginkorrak garatzeko konpromiso irmoa adierazten du. Halaber, konpromisoa hartzen du beste erakundeekin elkarlanean jarduteko.
- 5 Astigarragako Udalak Aldaketa Klimatikoaren eragiten duten udal eskumeneko faktoreen inguruko diagnosi bat eta 4/2019 Jasangarritasun Energetikoaren Legearen garapena udalerrira egokitzeko hurbilpen lan bat egingo du, 2021erako.
- 6 Astigarragako Udalak, udalerriko egoeraren diagnosis kontuan hartuta, prozesu partehartzaile bat abiatuko du herritarren, auzoen, kontzejuen eta beste edozein eragileren ekarpenak barne bilduko



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

*dituen plangintza bat osatzeko, tokiko ekonomia zirkularra eta kontratazio berdean oinarrituta. Horren haritik, besteak beste, sentsibilizazio kanpainak egingo ditu herritarrak egoeraz jabetu eta parte hartzera gonbidatzeko.*

*7 Astigarragako Udalak, udalerriko herritar, eragile eta auzoekin elkarlanean, plangintza hau aurrera eramateko beharrezkoak diren bitarteko tekniko zein ekonomikoak bermatzeko konpromisoa hartzen du, bere gaitasunen arabera izanik plangintza gauzatzeko epea.*

*8 Astigarragako Udalak bat egiten du, larrialdi klimatikoaren egoera dela medio, irailaren 20tik 27ra deituta dauden ekimenekin eta herritar guztiak parte hartzera animatzen ditu.*

*9 Astigarragako Udalak herritarrei mozio honen berri emango die.*

*10 Astigarragako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako trantsizio ekologikorako ministerioari bideratuko die onartutako mozioa.*

Nerea zinegotziak aurreratu du alde bozkatuko dutela, bere taldeak egindako ekapenak kontuan hartu direlako; eta jarraian aurreko legealdian gaiaren inguruan egindako hainbat proiektuen berri eman du.

Mikel zinegotziak hitza hartu eta adierazi du gauza ona dela horrelako gai baten aurrean adostasuna izatea, eta klima aldaketa denen ongizatean eragina duelako; eta pozten dela testu bategin bat egin izanagatik.

Andoni zinegotziak Nerea zinegotziari aurpegiaratu dio aurreko legealdian klima aldaketaren inguruko hainbat lan egin arren, beste erakunde batzuek horren kontra izapidetutako beste proiektu batzuk babestu izana.

Horrek bi zinegotzien arteko eztabaida sortu du, Nerea zinegotziarentzat Astigarragako EAJ-PNV ezin baitu beste erakundeen eskumeneko gaietan sartu eta berak udal taldearen izenean bakarrik hitz egiten duelako. Andoni zinegotziarentzat, berriz, udal osoko bilkurak horietako proiektu batzuei ongi ikusia eman zien, eta gainera, mozio bidez ere gai horien inguruko akordioak hartzeko aukera dago.

Mikel zinegotziak hitza hartu eta eskatu du mozioari buruz hitz egitea, gaineratuz eztabaidako gaiez aurreko legealdian askotan hitz egin zela.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

La concejala Nerea avanza que votarán a favor, ya que se han tenido en cuenta las aportaciones realizadas por su grupo, y a continuación informa sobre diversos proyectos realizados en torno al tema en la anterior legislatura.

Toma la palabra el concejal Mikel y señala que es bueno que haya unanimidad ante un tema así, dado que el cambio climático afecta al bienestar de todo el mundo; y que se alegra por haber elaborado un texto unificado.

El concejal Andoni le reprocha a Nerea que aunque en la anterior legislatura se realizaron diversos trabajos en torno al cambio climático, hayan apoyado otros proyectos tramitados en sentido contrario por otras instituciones.

Eso ha generado una discusión entre ambos concejales, ya que en opinión de la concejala Nerea EAJ-PNV de Astigarraga no puede entrar en los temas que son competencia de otras instituciones y porque ella sólo habla en nombre del grupo municipal. En opinión del concejal Andoni, en cambio, el pleno municipal dio su visto bueno a alguno de esos proyectos y, además, hay posibilidad de lograr acuerdos en torno a esos temas mediante mociones.

El concejal Mikel toma la palabra y solicita que se hable sobre la moción, añadiendo que en la anterior legislatura se ha hablado muchas veces sobre los temas que están debatiendo

A continuación se procede a votar y se **aprueba por unanimidad**.

### 12.- Informazio, galdera eta eskariak.

### 12.- Información, ruegos y preguntas.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### a.- Aurrekontu partehartzaileak

Nerea zinegotziak aurrekontu partehartzaileen inguruko informazioa eskatu du. Alkateak azaldu dio asmoa dela urriaren hasieran ogasun batzordera eramatea eta gero saioak eta lanketak egitea.

### b.- DBH eta haur eskola.

Mikel zinegotziak DBH eta haur eskolaren inguruan egindakoen informazioa eskatu du.

Alkateak azaldu dio uztailean bilera izan zutela Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan herri eskola eta DBHren inguruan hitz egitekoa. Lehendabizikoari dagokionez, adierazi du ordezkaritzan harritu egin zirela jakitean obra-proiektua idatzi gabe zegoela, dena den, Ur agentziak zalantzak dituela kokapenarekin. Gaineratu du aztertzen daudela handitzeko beste alternatiba batzuk eta horiek zuzendaritza, guraso elkarrekin eta hezkuntza sailarekin kontrastatu ondoren, asmoa dela abenduan ordezkaritzan aurkeztea.

DBHko eraikinari dagokionez, azaldu du horren aurreproiektua ere abenduan aurkeztuko dela. Zalantzak zeudela irisgarritasunarekin, baina ez dagoela arazorik, egia den arren obraren kostua handiagoa izango dela.

Bukatzeko, eta haur eskolari dagokionez, komentatu du proiektua idazten daudela, eta asmoa dela urtea bukatu baino lehenago lizitazioa egitea.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin nik, Idazkariak, honako agiria egin dut

Astigarragan, 2019ko irailaren 24an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria  
Ordezko udal-idazkaria

### a.- Presupuestos participativos

La concejala Nerea solicita información en torno a los presupuestos participativos. El alcalde expone que la intención es llevarlos a la comisión de hacienda a principios de octubre, y realizar posteriormente las correspondientes sesiones y elaboraciones.

### b.- ESO y escuela infantil.

El concejal Mikel solicita información sobre lo realizado en ESO y en la escuela infantil.

El alcalde le indica que en julio mantuvieron una reunión en la Delegación Territorial de Gipuzkoa para hablar sobre la escuela pública y la ESO. Respecto al primer punto, señala que en la delegación se sorprendieron al conocer que el proyecto de obra estaba sin redactar, y que, sea como fuere, la agencia del agua tiene dudas con el emplazamiento. Añade que están estudiando otras alternativas para la ampliación, y que tras contrastarlas con la dirección, la asociación de madres y padres y el departamento de educación, la intención es presentarlas en diciembre en delegación.

Respecto al edificio de ESO, expone que su anteproyecto se presentará en diciembre. Que había dudas con la accesibilidad, pero que no hay ningún problema, pese a que es verdad que el coste de la obra será mayor.

Para concluir, y respecto la guardería, comenta que están redactando el proyecto, y que la intención es realizar la licitación antes de que finalice el año.